



INFORMAZIOAREN GIZARTEKO FAROAK

ALEJANDRAKO ALDARRIKAPENA, INFORMAZIO-ALFABETIZAZIOAREN ETA BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IKASKUNTZAREN ALDEKOA.

Aintzinako munduko miragarria den Alejandriako Faroaren kokapen zehatza egiaztatzen den aste honetan, 2005eko azaroaren 6 eta 9 bitartean Alejandriako liburutegian egin den Informazio-Alfabetizazioaren eta Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzaren Aldeko Goi Mailako Mahai-Inguruko partehartzaileek adierazten dute informazio-alfabetizazioa eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza Informazioaren Gizarteko faro direla garapenerako, aurrerakuntzarako eta askatasunerako bidea argizatzen dutena.

Informazio-alfabetizazioa bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren muinean datza. Gizakiak gaitzen ditu bere helmuga pertsonalak, gizartekoak, lanekoak eta hezkuntzakoak lortzeko bideak era eraginkorrean bilatzean, neurtzean, erabiltzean eta sortzean. Mundu digitalean oinarritako giza-eskubidea da eta nazio guztien barne-sartze soziala bultzatzen du.

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzak gizakiak, komunitateak eta nazioak gaitzen ditu euren helburuak lortzeko eta onurak partekatzeko giro global aldakorretik eratorritako aukeretatik abantailak lortzeko. Maila pertsonal eta erakunde mailan laguntzen ditu erronka teknologikoei, ekonomikoei eta sozialei aurre egiten, desabantailak gainditu eta guztion ongizatea lortzeko.

Informazio-alfabetizazioa(k):

- Informazio beharrak antzemateko gaitasunak batzen ditu eta testuinguru kultural eta sozialen informazioa topatu, neurtu, erabili eta sortzekoak ere bai.
- Gizakien, enpresen (txiki eta ertainak bereziki), eskualdeen eta nazioen lehiakortasun abantailarako ezinbestekoa da.
- Gizarteko biztanle zein beste aspektu batzuetarako bide eraginkorrak ahalbidetzen ditu, hala nola, garapen ekonomikoa, hezkuntza eta osasuna, besteak beste. Hala, bai Milurtekoaren Aldarrikapenean bai Gizarte Mundu Gailurrean ezarritako helmugak lortzeko oinarria jartzen du.
- Egungo teknologietatik haratago doa eta hezkuntza, pentsamolde kritikoa eta interpretazio-gaitasunak hartzen ditu, lan arloko mugak gainditu eta gizaki eta gizataldeak gaituz.

Informazioaren Gizartearen testuinguruan, gobernu zein gobernuen arteko erakundeei zin-zinez eskatzen diegu informazio-alfabetizazioa eta bizitzan zeharreko ikaskuntza sustatzeko politika-egitasmoak saia ditzaten. Honakooi laguntza ematea eskatzen dugu:

- Eskualde eta ekonomia alor zehatzetan informazio-alfabetizazioa eta bizitzan zeharreko ikaskuntza ahalbidetzeko estrategiak garatzeko xede duten bilerak.
- Hezkuntza, liburutegi, informazio, agiritegi eta osasun arloetako langileentzat eta herritarrentzako garapen profesionala informazio-alfabetizazioaren eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren gaineko printzipio eta oinarriei buruzkoa.
- Informazio-alfabetizazioa ekonomia lor garrantzitsuenen oinarritzko eta etengabeko hezkuntzan sartzea eta baita politiken prestakuntzan, gobernu-administrazioan eta negozio, industria eta nekazaritzarako aholkularitzan ere. .
- Emakume, ezindu, etorkin, azpikontratatu eta langabetuen ekimena bultzatzeko diren egitasmoak.
- Informazio-alfabetizazioa eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza oinarritzko garapenerako ezinbesteko giltza direla onartzea hezkuntzako esparru guztietan.

Informazio-alfabetizazioa eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntzak balio publikoa sortzen du eta Informazioaren Gizartearen garapenerako ezinbestekoa da.

Egipton, Alejandriako Liburutegian aldarrikatua 2005eko azaroaren 9an.

Itzulpena: Josune Aranguren (Muskizko Udala)